

**Zk-5908**

284/2000 DEKRETUA, 2000ko abenduaren 26koa, bizitzan zeharreko ikaskuntza jarduerak egiteko laguntzak arautzen dituena.

Enplegurako Erakunde Arteko Plana 1999-2002 Legegintzaldian Gobernu osatzeko Koalizio Akordioaren ondorioa da, eta legegintzaldirako Gobernuak garrantzitsutzat jo zituen Plan, Programa eta Jarduketan Egutegian jaso zen. Halaber, Plan hori Eusko Jaurlaritzaren, foru aldundien eta udalen arteko koordinazio tresna da baliabide eta politika publikoak integratu eta koordinatzeko. Helburua enpleguaren aldeko estrategia erkidea gauzatzea da. Estrategia hori Europar Batasuneko Enplegurako Estrategian eta enplegurako gidalerroetan oinarritu behar da. Era bertsuan, estrategia horrek gure lan merkatuko arazo bereziak hartu behar ditu kontuan, eta euskal errealitate sozioekonomikoari egokitu behar zaio.

Erakunde arteko koordinazio horren ondorioz, Planeko kapitulu batean funtzioak banatu dira. Hortaz, Erakunde Arteko Plana garatzen duten jarduketak egokitu beharko zaizkio, batetik, Planean bertan, erakunde parte-hartzaileen jarduketa-eremuei eta, bestetik, jarduketa-eremu erkideak koordinatzeko ekintzei buruz definitutakoari.

Eusko Jaurlaritzak egungo lan merkatuaren testuinguruan enplegu eta prestakuntzarako politika aktiboak jarduteko, beharrezkoa da arautegi malgua xedatzea; arautegi hori Europako gidalerro berriei egokitu behar zaie, batez ere, bizitzan zeharreko ikaskuntzari dagokion gidalerroei.

Dekretu honetan jasotako dirulaguntzak erabiliko dira ezagutzaren edozein esparrutan gauzatutako ikaskuntza erabilgarriko jarduerak garatzeko; jarduera horiek bizitzan zeharreko ikaskuntzaren testuinguruan kokatu behar dira, eta enplegua lortzeko gaitasuna handitzeko balio behar dute, 25 urtetik gorako langabetuen, landunen eta jarduerarik gabeko pertsonen lanbide-gaitasunak, trebetasunak eta dohain horizontalak eta zehar dohainak hobetuz; eta halaxe jaso da, 2001. urterako, Europar Batasuneko Kontseiluak bertako estatuetako enplegu-politikentzat proposatutako gidalerroetan.

Erakunde arteko jarduketaren helburu izan daitezkeen eta gizarte eragileen partaidetza izan dezaketen ikaskuntza iraunkorreko jarduerak bi motatakoak izan daitezke. Batetik, bizitzan zeharreko ikaskuntza ekimen, ekintza edo jarduera espezifikoari buruzkoak. Norbanako interesatuak bil daitezke proiektu mota horretara. Mota horretakoak dira besteak beste norbanakoen ikaskuntza kontuei (Learning Account) buruzko jarduketak eta gizarteratze-txekeak. Bestetik, Toki edo eskualdeko ikaskuntza ekimen, ekintza edo jarduketak garatu eta sustatzen dituztenak, baldin eta enplegu zen-

**Nº-5908**

DECRETO 284/2000, de 26 de diciembre, por el que se regulan ayudas para la realización de actuaciones referidas al aprendizaje a lo largo de toda la vida.

El Plan Interinstitucional por el Empleo, derivado del Acuerdo de Coalición para la formación del Gobierno en la Legislatura 1999-2002 y contenido en el Calendario de Planes, Programas y Actuaciones significativas del Gobierno para la legislatura, se constituye como un elemento de coordinación entre el Gobierno, las Diputaciones Forales y los Ayuntamientos con el objetivo de integrar y coordinar recursos y políticas públicas en la consecución de una estrategia común en materia de empleo que, inspirada directamente en la Estrategia Europea de Empleo y en las Directrices de empleo, atiende a nuestros problemas específicos de mercado de trabajo adaptándose a la realidad socioeconómica vasca.

Fruto de esta coordinación interinstitucional es el Capítulo que el Plan destina a la distribución de funciones. Así pues, las actuaciones que desarrollen el Plan Interinstitucional deberán ajustarse a lo establecido en el mismo respecto de la definición de los ámbitos de actuación de las instituciones participantes así como de las acciones de coordinación necesarias en aquellos ámbitos de actuación común.

La actuación del Gobierno Vasco en materia de políticas activas de empleo y formación dentro del actual contexto del mercado de trabajo, exige disponer de una normativa flexible capaz de adaptarse a las nuevas Directrices europeas, especialmente las referidas al aprendizaje a lo largo de toda la vida.

Son objeto de las ayudas contempladas en este Decreto aquellas actuaciones que se lleven a cabo para desarrollar actividades de aprendizaje útil realizadas en cualquier ámbito del conocimiento, en el contexto del aprendizaje a lo largo de toda la vida, con la finalidad de aumentar la empleabilidad mejorando las cualificaciones profesionales, las competencias y las aptitudes horizontales y transversales de las personas mayores de 25 años desempleadas, ocupadas o inactivas, a las que se refieren las directrices del Consejo de la Unión Europea para las políticas de empleo de los Estados miembros correspondientes al año 2001.

Los proyectos de aprendizaje permanente, podrán ser objeto de actuación interinstitucional, estar participados por los agentes sociales, y serán de dos tipos. De un lado, los que hagan referencia a una iniciativa, acción o actuación específica de aprendizaje a la que puedan acogerse las personas interesadas, de forma individual. Así pues, podrán enmarcarse en esta tipología las actuaciones referidas a las cuentas individuales de aprendizaje (Learning Account), los cheques-inserción etc. De otro lado, los que desarrollen y fomenten iniciativas, acciones o actuaciones de aprendizaje en ámbitos locales

trotzat jotako orientazio zerbitzuek aurkeztu badituzte eta lan proaktiboa egiten badute ikaskuntza mota horretako eskaintza eta eskariari dagokionez.

Dekretu honetan xedatutakoaren arabera, bizitzan zehar eta ezagutzaren edozein esparrutan egindako ikaskuntza erabilgarriko jarduerak diruz lagundu behar dira, egiturak aldatzen ari direlako eta ezagutzan oinarritutako ekonomiarantz baikoa; testuinguru horretan, gero eta garrantzitsuagoa da jendeak ezagutza, gaitasun eta trebetasun egoki, anitz eta onuragarriak hartzea. Pertsonen gaitasun eta trebetasunak hobetzeak eragin ona du eskualdeko ekonomia-errendimenduan eta gizarte kohesioan bertan; era berean, lagungarria da pertsonen enplegagarritasun iraunkorarentzat, eta herri-tarren parte-hartzea sustatzen da. Hori dela eta, Lisboa-ko Kontseilu Europarraren ondorioen arabera, bizitzan zeharreko ikaskuntza (lifelong eta lifewide learning) garatzeaz gainera, ezagutzan oinarritutako ekonomia eta gizarterantz jo behar da, arrakasta lortu nahi bada beren.

Halaber, hezkuntza eta lanbide heziketaren arteko muga lausotzen ari da. Ikaskuntza prozesua bizitzan zehar garatzen da testuinguru desberdinetan, ezagutzaren edozein esparrutan eta ikaskuntzako eredu aldakor eta desberdinen bidez: (1) hezkuntza eta prestakuntza formala hezkuntza eta prestakuntza zentroetan gauzatzen da aintzatetsitako prestakuntza lortzeko, (2) ikaskuntza ez formala gauzatzen da sistema formalak osatzeko erakunde eta zerbitzuei esker, lan-tokian edo gizarte zibileko erakunde eta taldeen bidez (ziurtagiri formalik gabe) eta (3) ikaskuntza informala, eguneroko bizitzaren osagarri naturala dena, nahitakoa ez bada ere, esate baterako etxeetan informatikaren azaltzeak ekarri duen ikaskuntza.

Lehen aipatutakoa kontuan izanda, Europako Erki-degoetako Batzordeak jakinarazpen batzuetan eta ikaskuntza iraunkorrari buruzko arestiko Memorandumean gomendatu du bizitzan zeharreko ikaskuntza edo ikaskuntza iraunkorrari buruzko ekimenak bultzatzea. 2001. urterako, Europar Batasuneko Kontseiluak bertako estatuetakoen enplegu-politikentzat ezarritako gidalerroen inguruko erabakiak ondokoak biltzen ditu: lehenengoz, ikaskuntza iraunkorra, enplegu politika guztien helburu horizontal eta zehar helburu gisa; bigarrenez, hiru gidalerro espezifiko (4, 5 eta 6. gidalerroak, «gaitasunak garatzea lan merkatu berriarentzat, ikaskuntza iraunkorraren testuinguruan» helburuaren barruan) eta, hirugarrenez, 16. gidalerroa (komenigarria da gizarte eragileek hezkuntza iraunkorra errazteko akordioak egitea). Kontseiluak Espainiako Erresumari bereziki zuzendutako gomendioen arabera, berriz,

o comarcales, que deberán ser presentados por los servicios de orientación calificados a su vez como centros de empleo y ejercer una labor proactiva en la oferta y demanda de este tipo de aprendizaje.

La necesidad de que este Decreto recoja como subvencionable aquellas actuaciones de aprendizaje útil realizadas a lo largo de toda la vida en cualquier ámbito del conocimiento tiene su justificación en un contexto de cambio estructural y de evolución hacia una economía basada en el conocimiento, donde cada vez es más importante que la población adquiera unos niveles adecuados, variados y apropiados de conocimiento, aptitudes y competencias. La mejora de las competencias y habilidades de las personas tiene un impacto positivo en el rendimiento económico de la región y en la propia cohesión social, contribuyendo a la empleabilidad permanente de las personas y a su vertiente de ciudadanía activa. Es por ello que las conclusiones del Consejo Europeo de Lisboa confirman que la tendencia a un aprendizaje a lo largo y ancho de toda la vida (lifelong y lifewide learning) debe acompañar la transición hacia una economía y una sociedad basadas en el conocimiento para que ésta pueda tener éxito.

Igualmente, la frontera entre la educación y la formación profesional se está difuminando. El proceso de aprendizaje se extiende a lo largo de toda la vida en contextos diferentes, en cualquier ámbito del conocimiento y a través de modalidades variables y diferentes de aprendizaje: (1) la educación y la formación formal, desarrollada en centros de educación y formación y conducente a la obtención de cualificaciones reconocidas, (2) el aprendizaje no-formal, realizado paralelamente merced a organizaciones o servicios establecidos para completar los sistemas formales o realizado en el lugar de trabajo o a través de las organizaciones y grupos de la sociedad civil pero sin conducir a certificados formales y (3) el aprendizaje informal, complemento natural de la vida cotidiana y no necesariamente intencionado, por ejemplo el aprendizaje que ha supuesto la aparición de la tecnología informática en los hogares.

Teniendo en cuenta estos aspectos, la Comisión de las Comunidades Europeas ha recomendado la adopción de iniciativas en torno al aprendizaje a lo largo de toda la vida o aprendizaje permanente, en una serie de comunicaciones y en su reciente Memorándum sobre el aprendizaje permanente. La Decisión del Consejo relativa a las directrices para las políticas de empleo de los Estados miembros correspondientes al año 2001, incluyen el aprendizaje permanente como objetivo horizontal o transversal de todas las políticas de empleo además de tres directrices específicas (directrices 4, 5 y 6 dentro del objetivo «Desarrollar las competencias para el nuevo mercado de trabajo en el contexto del aprendizaje permanente» y la directriz 16 animando a los agentes sociales a que celebren acuerdos que faciliten la educación permanente). Las recomendaciones dirigidas específicamente al Reino de España por el Consejo

bizitzan zeharreko ikaskuntza aldezteko neurriak hartzea komenigarria da.

Ondorioz, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburuaren proposamenez, EAeko Kooperatiben Kontseilu Nagusiaren, Lan Harremanetako Kontseiluaren, Ekonomi eta Gizarte Kontseiluaren eta interesatutako beste kontsulta-organoen iritzia entzunda, 2000ko abenduaren 26ko bilkuran Jaurlaritzaren Kontseiluak aztertu eta onartu ondoren, hauxe

#### XEDATU DUT:

##### 1. *artikulua*– Helburua.

Dekretu honen helburua da dirulaguntzak arautzea, Eusko Jaurlaritzak, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailaren bitartez, halako dirulaguntzak ematen dituenean, bizitzan zehar ikasketa erabilgarriko jarduerak garatzen dituzten jarduketak egiteagatik.

##### 2. *artikulua*– Aplikazio eremua.

Dekretu honetan jasotako laguntzak aplikatuko zaizkie arau hau indarrean jarri eta gero gauzatuko diren jarduerari, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko esparru geografikoan gauzatzen badira.

##### 3. *artikulua*– Erakunde onuradunak.

Ondokoak izan daitezke Dekretu honetan ezarritako laguntzen erakunde onuradunak, banaka zein taldeka:

- a) Foru aldundiak.
- b) Udalak eta udalerrien mankomunitateak.
- c) Toki eta eskualdeko garapen agentziak, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoan legez eratu badira eta nortasun juridiko independentea badute.
- d) Udal sozietateak.
- e) Euskal Autonomia Erkidegoan dauden unibertsitateak.
- f) Irabazteko asmorik gabeko fundazio eta elkarteak.
- g) Merkataritzako edo gizarte ekonomiako sozietateak.

##### 4. *artikulua*– Diruz laguntzeko moduko jarduketak.

1– Dekretu honetan jasotako dirulaguntzak erabiliko dira ezagutzaren edozein esparrutan gauzatutako ikaskuntza erabilgarriko jarduerak garatzeko; jarduera horiek bizitzan zeharreko ikaskuntzaren testuinguruan kokatu behar dira, eta enplegua lortzeko gaitasuna handitzeko balio behar dute, 25 urtetik gorako langabe-tuen, landunen eta jarduerarik gabeko pertsonen lanbide-gaitasunak, trebetasunak eta dohain horizontalak eta zehar dohainak hobetuz.

de la Unión Europea sugieren además la adopción de medidas que favorezcan, entre otros, el aprendizaje a lo largo de toda la vida.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Justicia, Trabajo y Seguridad Social, oídos el Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi, el Consejo de Relaciones laborales, El Consejo Económico y Social Vasco y los demás órganos consultivos interesados y previa deliberación y aprobación por el Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 26 de diciembre de 2000,

#### DISPONGO

##### *Artículo 1*– Objeto.

El objeto del presente Decreto es la regulación de las ayudas que el Gobierno Vasco, a través del Departamento de Justicia, Trabajo y Seguridad Social, otorgará para la realización de actuaciones que desarrollen actividades de aprendizaje útil a lo largo de toda la vida.

##### *Artículo 2*– Ambito de aplicación.

Las ayudas previstas en el presente Decreto serán de aplicación a aquellas actuaciones que se produzcan a partir de la entrada en vigor de esta norma y se realicen en el ámbito geográfico de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

##### *Artículo 3*– Entidades Beneficiarias.

Podrán ser beneficiarias, individual o conjuntamente, de las ayudas establecidas en el presente Decreto, las siguientes:

- a) Las Diputaciones Forales.
- b) Los Ayuntamientos y Mancomunidades de Municipios.
- c) Las Agencias de Desarrollo Local y Comarcal, siempre que estén legalmente constituidas en la Comunidad Autónoma del País Vasco y tengan personalidad jurídica independiente.
- d) Las Sociedades Municipales.
- e) Las Universidades sitas en el País Vasco.
- f) Fundaciones y Asociaciones sin ánimo de lucro.
- g) Sociedades Mercantiles o de economía social.

##### *Artículo 4*– Actuaciones subvencionables.

1– Serán objeto de las ayudas contempladas en este Decreto aquellas actuaciones que se lleven a cabo para desarrollar actividades de aprendizaje útil realizadas en cualquier ámbito del conocimiento, en el contexto del aprendizaje a lo largo de toda la vida, con la finalidad de aumentar la empleabilidad mejorando las cualificaciones profesionales, las competencias y las aptitudes horizontales y transversales de las personas mayores de 25 años desempleadas, ocupadas o inactivas.

2– Erakunde arteko jarduketaren helburu izan daitezkeen eta gizarte eragileen partaidetza izan dezaketen ikaskuntza iraunkorreko jarduerak bi motatakoak izan daitezke:

a) Bizitzan zeharreko ikaskuntza ekimen, ekintza edo jarduera espezifikoki buruzkoak.

b) Toki edo eskualdeko ikaskuntza ekimen, ekintza edo jarduketek osatutako proiektua garatu eta sustatzen dutenak. Kasu horretan, hurrengo artikuluan xedatutako arautegia hartuko da kontuan.

### 5. artikulua– Toki edo eskualdeko proiektuak.

Toki edo eskualdeko proiektuak ondoko betekizunak gauzatzen dituztenak dira:

1– Orientazioko Zerbitzuek aurkeztu izana, baldin eta zerbitzuok Enplegu zentrotzat jo badira maiatzaren 9ko 76/2000 Dekretuan ezarritako arautegiaren arabera eta tokikoak, udalez gairikoa edo eskualdekoak badira.

2– Enplegu Zentroak ikaskuntza iraunkorreko proiektua diseinatu eta betearaztea, baldin eta gutxienezko edukia ondokoak badira:

a) Toki edo eskualdeko eremuan gauzatutako jarduera eta ekimenen eskaintza biltzea, jarduera eta ekimenok harremanetan badaude ezagutzaren edozein esparrutako ikaskuntza erabilgarriarekin, bizitzan zeharreko ikaskuntzaren testuinguruan; interneten eskura dagoena ere hartu beharko da kontuan.

b) Proiektuaren geografia-eremuko pertsonen –talde behartsueneri eta etorkinei bereziki– aholkuak ematea toki/eskualdeko aukerei eta interneten bidezko aukerei buruz, bizitzan zeharreko ikaskuntzaren testuinguruan.

c) Lan proaktiboa egitea ekimenok bultzatu eta sustatzeko, bai eskaintza eta bai eskariari dagokionez, hau da: hezkuntza eta kultur erakundeak, irakaskuntza eta prestakuntza zentroak eta abar bisitatu beharko dira eta jendea mota horretako jarduerak sustatzeko berotu behar da.

d) Proiektuan gizarte lankideen parte hartzea bultzatzea.

3– Proiektuaren diseinua eta betearazpena ikaskuntza iraunkorreko pertsona artekariaren ardura izango da; pertsona horrek gizarte zientzietako unibertsitate lizentziatura izango du, eta giza baliabideetako aditua izango da.

### 6. artikulua– Dirulaguntzen zenbatekoa.

1– Dekretu honen 4.2 a) artikuluan jasotako jarduketak gauzatzeko dirulaguntza fondo galdurakoa izango da; dirulaguntza hori erakundeek emandako gaine-

2– Las actuaciones de aprendizaje permanente, que podrán ser objeto de actuación interinstitucional y estar participadas por los agentes sociales, podrán ser de dos tipos:

a) Las que hagan referencia a una iniciativa, acción o actuación específica de aprendizaje a lo largo de toda la vida.

b) Las que desarrollen y fomenten un proyecto con iniciativas, acciones o actuaciones de aprendizaje en ámbitos locales o comarcales. En este último caso se estará a la regulación que se establece en el artículo siguiente.

### Artículo 5– Proyectos de dimensión local o comarcal.

Serán calificados con esta denominación aquellos proyectos que cumplan los siguientes requisitos:

1– Que sean presentados por aquellos Servicios de Orientación catalogados a su vez como centros de Empleo según la regulación establecida por el Decreto 76/2000, de 9 de mayo, y cuya dimensión geográfica abarque un ámbito municipal, supra municipal o comarcal.

2– Que el Centro de Empleo diseñe y ejecute un proyecto de aprendizaje permanente, cuyos contenidos mínimos serán los siguientes:

a) Recopilar toda la oferta de actuaciones e iniciativas que se lleven a cabo en el ámbito municipal o comarcal relacionadas con el aprendizaje útil en cualquier ámbito del conocimiento en el contexto del aprendizaje a lo largo de toda la vida, incluida la oferta disponible en Internet.

b) Asesorar y orientar a las personas de su ámbito geográfico, con especial atención a colectivos más desfavorecidos e inmigrantes, de las posibilidades existentes, tanto a nivel local/comarcal como a través de Internet, en relación con el aprendizaje a lo largo de toda la vida.

c) Realizar una labor proactiva para el impulso y estímulo de estas iniciativas, tanto a nivel de oferta como a nivel de demanda, visitando entidades educativas y culturales, centros de enseñanza y de formación, etc. y concienciando a la población para promover este tipo de actuaciones.

d) Fomentar la participación del partenariado social en el proyecto.

3– El diseño y ejecución del proyecto serán responsabilidad de una persona mediadora del aprendizaje permanente con licenciatura universitaria en ciencias sociales y con perfil en recursos humanos.

### Artículo 6– Cuantía de la subvención.

1– La ayuda prevista para el ejercicio de las actuaciones a las que se hace referencia en el artículo 4.2 a) de este Decreto, consistirá en una subvención a fondo

rako ekarpenei gehituz gero, ez da onetsitako aurrekontuaren %100a gaindituko.

2- Dekretu honen 4.2 b) artikuluan jasotako jarduketak gauzatzeko dirulaguntza proiektua diseinatu eta betearazteko erabiliko da, eta zenbatekoa 5.000.000 pezetakoa (30.050,60 Euro) izango da; dirulaguntza hori fondo galdurako izango da.

7. *artikulua*- Zergen arloko betebeharrak, laneakoak, Gizarte Segurantzarekikoak eta dirulaguntza publikoei dagozkienak bete beharra.

1- Dekretu honetan ezarritako dirulaguntzak eman eta ordaintzeko, onuradunek zergen arloko betebeharrak edota Gizarte Segurantzarekikoak bete dituztela frogatu beharko dute, horretaz Ogasun eta Herri Administrazio Sailak xedatzen duenarekin bat etorritik. Gainera, lanaren arloan indarrean dagoen legeria bete beharko dute.

2- Halaber, dirulaguntzak eman eta ordaintzeko, onuradunek amaitu egin beharko dituzte Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Administrazio Nagusiak eta haren organismo autonomiadunek ematen dituzten eite bereko laguntza edo dirulaguntzen inguruan tramitatzen dituzten itzulketa edo zehapen prozedurak.

8. *artikulua*- Erakunde onuradunen betebeharrak.

Instituzio eta erakunde onuradunek, Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50.2 artikuluan adierazitako betebeharretatik aplikatu daitezkeenez gainera, ondokoak ere egin beharko dituzte:

1- Diruz lagundutako jarduerak zabaldu, hedatu edo, behar izanez gero, argitaratzen badira, Eusko Jaur-laritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren, Europako Gizarte Fondoaren eta proiektua finantzatzeko lagundu duten gainerako erakunde publikoen babesa adierazi behar dute berriaz entitate onuradunek.

2- Onuradunek konpromisoa berenganatu behar dute dirulaguntza behar den xedeetarako erabiltzeko, eta horretarako harreman-bermeak jarri beharko dituzte, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoaren arabera; dekretu horren bidez Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kargura ematen diren dirulaguntzen berme eta itzulketei buruzko araubide orokorra arautu da eta haien kudeaketan laguntzaile arituko diren erakundeentzako betekizunak, araubidea eta betebeharrak ezarri dira.

3- Dirulaguntza jasotzen duten entitateak diruz lagundutako jardueren helburua edo edukia aldatzen duen zernahi gorabeheraren berri ematera beharturik daude, baita Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sai-

perdidoa, sumada, en su caso, al resto de aportaciones institucionales, no superará el 100% del presupuesto que resulte aprobado.

2- La ayuda prevista para el ejercicio de las actuaciones a las que se hace referencia en el artículo 4.2 b) de este Decreto, será, para el diseño y ejecución del proyecto, de 5.000.000-ptas. (30.050,60 Euros), en concepto de subvención a fondo perdido.

*Artículo 7*- Cumplimiento de obligaciones tributarias, de Seguridad Social, laborales y en materia de subvenciones públicas.

1- La concesión y pago de las ayudas previstas en el presente Decreto queda condicionada a la acreditación, por parte de los beneficiarios, del cumplimiento de sus obligaciones tributarias y/o, en su caso, con la seguridad social, de conformidad con lo que al efecto disponga el Departamento de Hacienda y Administración Pública, así como al cumplimiento de la legalidad vigente en materia laboral.

2- Asimismo, la concesión y, en su caso, el pago de las subvenciones y ayudas a los beneficiarios de éstas quedarán condicionados a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

*Artículo 8*- Obligaciones de las entidades beneficiarias.

Sin perjuicio de las obligaciones de las entidades beneficiarias señaladas en el artículo 50.2 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, que en su caso resulten aplicables, las Instituciones y Entidades beneficiarias de las ayudas quedan obligadas a:

1- Hacer constar expresamente el patrocinio del Departamento de Justicia, Trabajo y Seguridad Social del Gobierno Vasco, del Fondo Social Europeo y el del resto de instituciones públicas que hayan participado en la cofinanciación del proyecto, en todas aquellas actividades subvencionadas que conlleven la divulgación, difusión, o en su caso, publicación de las mismas.

2- Garantizar el destino y aplicación de las ayudas mediante garantías relacionales, conforme a lo previsto en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, por el que se regula el régimen general de garantías y reintegros de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco y se establecen los requisitos, régimen y obligaciones de las entidades colaboradoras que participan en su gestión.

3- Comunicar cualquier eventualidad que afecte sustancialmente el objeto o naturaleza de las actividades subvencionadas, así como a colaborar con el Departamento de Justicia, Trabajo y Seguridad Social en los

lari jarduera horien egiaztatze-, segimendu- eta kontrol-prozeduretan laguntzera ere.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak dekretu honen bidez lortu nahi diren helburuak beteko direla bermatzeko behar diren ikuskaritza- eta kontrol-jarduerak egitea izango du.

4- Ekonomi Kontrolerako Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak dirulaguntzen xedea fiskalizatzeko lanetan eskatzen dieten informazioa eman.

**9. artikulua**- Beste dirulaguntza batzuekiko aldi berekotasun-aukera.

1- Dekretu honetan jasotako laguntzen helburu berberak izanik, beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batzuek emandako dirulaguntzak bateragarriak izango dira. Hala ere, dirulaguntzon zenbatekoak ezingo du gainditu lehen onetsitako aurrekontuaren zenbateko osoa.

2- Beste administrazio batzuek edo beste entitate publiko edo pribatu batzuek helburu bererako eta motibo berberetatik emandako laguntzak eta agindu honetako laguntzak batera jaso gero, eta laguntza horiek guztiak dirulaguntzaren helburu den jardueraren gutzitiko kostutik gorakoa egiten badute, gainerako horren bateraezintasuna deklaratu da, eta Eusko Jaurlaritzak emango duen laguntza txikitu egingo da, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren bitartez txikitu ere.

**10. artikulua**- Eskabideen aurkezpena: nola, epea eta berri ematea.

1- Dekretu honetako laguntzak jasotzeko eskaerak eskaera-orri normalizatuan aurkeztuko dira, oso-osorik eta behar bezala beterik, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren kasuan kasuko lurralde ordezkarietan, hau da, ekintza gauzatuko den lurralde historikoko ordezkarietan. Nolanahi ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritakoa aplikatu beharko da.

2- Eskabideak aurkeztu beharko dira deialdiaren urte osoan, eta jarduerari ekin beharko zaie eskabidea aurkeztu den ekonomia-ekitaldian.

3- Publizitateari dagokionez, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak deialdia egingo du urtero dekretu honetan ezarritako dirulaguntzen berri emateko; deialdian dirulaguntzetarako aurrekontuan jarritako kopurua ere adieraziko da.

**11. artikulua**- Derrigorreko agiriak.

1- Dirulaguntza jasotzeko eskabideak oso-osorik bete behar dira, eta haiekin batera ondoko agiriak ere aurkeztu behar dira:

procedimientos de comprobación, seguimiento y control de dichas actividades.

El Departamento de Justicia, Trabajo y Seguridad Social podrá realizar las acciones de inspección y control necesarias para garantizar el cumplimiento de las finalidades perseguidas por este Decreto.

4- Facilitar cuanta información le sea requerida al beneficiario por la Oficina de Control Económico y el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas en el ejercicio de sus funciones de fiscalización del destino de las ayudas.

**Artículo 9**- Concurrencia con otras subvenciones.

1- Las subvenciones reguladas en el presente Decreto son compatibles con aquellas otras que, con el mismo objeto y finalidad, pudieran ser otorgadas por cualesquiera otras Administraciones o entidades públicas o privadas. En cualquier caso el importe de las subvenciones no podrá superar el coste total del presupuesto que resulte aprobado.

2- Cuando las ayudas del presente Decreto concurren con cualesquiera otras que por el mismo motivo y finalidad perciba la entidad beneficiaria de otras Administraciones o entidades públicas o privadas, si la suma de las mismas superara el coste total de la actividad objeto de subvención, se declarará la incompatibilidad de dicho exceso, reduciéndose el importe de la ayuda a conceder por el Gobierno Vasco a través del Departamento de Justicia, Trabajo y Seguridad Social.

**Artículo 10**-Presentación de solicitudes: forma, plazo y publicidad.

1- Las solicitudes de las ayudas previstas en este Decreto se presentarán en instancia normalizada, debidamente cumplimentada en todos sus términos, ante la Delegación Territorial del Departamento de Justicia, Trabajo y Seguridad Social del Gobierno Vasco del Territorio Histórico donde se materialice la acción. En todo caso, será de aplicación lo previsto en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

2- Las solicitudes deberán presentarse a lo largo del año en que tenga lugar la convocatoria, debiendo necesariamente tener su inicio las actuaciones en el mismo ejercicio económico en el que haya sido presentada la solicitud.

3- A los efectos de dar cumplimiento al principio de publicidad, el Departamento de Justicia, Trabajo y Seguridad Social, realizará anualmente la pertinente convocatoria para dar a conocer las ayudas previstas en este Decreto, con expresión de la dotación presupuestaria correspondiente.

**Artículo 11**-Documentación preceptiva.

1- Las solicitudes de subvención deberán cumplimentarse en todos sus términos, y venir acompañadas necesariamente de la siguiente documentación:

a) Proiektuan aurreikusitako jarduera-multzoa deskribatzen duen txostena; bertan ondokoak adierazi behar dira: gauzatu beharreko jarduketan edukiak, helburuak, kokapena, aldiak, jardueraren helburu diren taldeak, jarduketan parte hartzen duten interesdun eragile eta elkarteak, proposatutako metodologia, ekintzen kostua eta proiektua definitzeko balio duten gainerako inguruabarrak.

b) Gainontzeko Interesdunaren Datuen Fitxa, laguntza jaso duen erakunde edo instituzioak izenpetu eta zilagaturik.

c) Identifikazio Fiskaleko Txartelaren kopia.

d) Foru Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren ziurtagiri gaurkotuaren bi ale; agiri horren bidez, entitate eskatzaileak Gizarte Segurantzarekin edota Aurreikuspen Erakundearekin dituen betebeharrak egunean dituela ziurtatuko da.

Ordainketak behar bezala egin direla ulertuko da, baldin eta atzerapena eskatu bada eta berori egiaztatzen bada agiriaren bidez, atzeratutako zorrari dagokionez.

e) Entitate eskatzailearen zinpeko aitormena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorra eta bere organismo autonomiadunek emandako laguntzen edo dirulaguntzen eremuan hasi eta izapidetzealdian dauden prozedurei —dirua itzultzeko prozedurei eta prozedura zigortzaileei— buruzkoa.

